

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### AHOLKULARITZA JURIDIKOA

#### **426/21 prozedura laburtuan epea jartzea**

Prestakuntza- eta praktika-planetarako ordainsarien taulak jasotzen dituen eranskina onetsi zeneko Gasteizko Udalaren 2021eko uztailaren 16ko ebazpenaren kontra Y6460903X atzerritarren identifikazio-zenbakiaren titularrak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —426/21 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 22an

*Udal legelaria*

*JON KEPA ZARRABE GARCÍA*